



PROGRAMAZIO LABURRA

IKATETXEAREN IZENA	ARALAR BHI							2022-2023
ARLOA / GAIA	EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA							2022-09-19
MAILA	DBH-1	X	DBH-2		DBH-3		DBH-4	

1	ARLOAREN GUTXIENeko KONPETENTZIAK
ZEHAR KONPETENTZIAK K1- Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia. K2- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia. K3- Elkarbizitzarako konpetentzia. K4- Izaten ikasteko konpetentzia. K5- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia. DISZIPLINA BAITAKO KONPETENTZIAK K6- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia. K7- Hizkuntza eta Literatura komunikaziorako konpetentzia. K8- Matematikarako konpetentzia. K10- Teknologiarako konpetentzia. K11- Arterako konpetentzia. K12- Konpetentzia motorra. K13- Zientziarako konpetentzia.	

HELBURUAK

Letra lodiz idatzita dagoena gutxiengotzat jotzen dena da.

Ahozko komunikazioa

- Ahozko testu mota desberdinak entzun, ulertu eta aztertzea **K1,K2,K7**
- Ahozko testuak sortu eta edukiak planifikatzea
K1,K2,K7
- Ahoskera eta intonazio egokia erabiltzea.
K3,K5,K7

Komunikazio idatzia

- Idatzizko eta irakurritako testuen egitura antzematea: igorlearen asmoa eta ideiak ordenatuz. **K1,K2,K7**
- Idatzizko testuak aztertzea. Ideia nagusiak eta 2.mailakoak identifikatu eta eskemak burutuz.
K1,K2,K7, K10
- Lexiko ezezagunaren esanahia bilatu eta testualizatzea. **K1,K2,K7**
- Idatzizko testuak ezagutu eta sortzea: koherentzia, kohesioa eta zuzentasunez.
K1,K2,K7
- Testu idatziak antolatu eta planifikatzea, egitura jakinak, eskemak, erabiliz. **K1,K2,K7, K10**
- Auto-zuzenketarako tresnak lantzea. **K1,K2,K7**

Literatura

- Gazte literaturako lanak, tradizionalekoak eta herri-literaturakoak irakurtzea: gogotsu eta gozatuz. **K2,K7**
- Olerkiak eta bertsoak entzun eta errezipitatzea. **K2,K7, K8**
- Antzerki-lanak dramatizatuz irakurtzea. **K2,K7,K11**
- Literatura asmoko testuak sortzea: ipuinak. **K2,K7**
- Euskal abestiak ezagutu, aztertu eta ikastea. **K1,K2,K7**
-

Hizkuntzari buruzko hausnarketa

- Ahozkoan eta idatzizkoan ematen diren fonema eraldaketak zuzentzea edo gainditzea. **K1,K2,K7**
- Testu-lokailuak antzeman eta erabiltzea; zehazki lekuari, denborari eta antolaketari dagozkionak.
K1,K2,K7
- Aditz jokoak eta komunztadurak; eta deklinabidea ezagutzea eta zuzen erabiltzea. **K1,K7**
- Paragrafoa esanahidun unitatetzat hartzea eta puntuazio idatzia antolatzeke mekanismotzat. **K1,K7**
- Oinarriko gramatika kategoriak ezagutzea **K1,K7**
- Ortografia-zuzentzaileak erabiltzea. **K1,K7, K10**
- Testuetako hizkuntza zuzentzea eta gramatika berrikusteko zuzenketa fitxak erabiltzea. **K1,K2,K7**

Hizkuntzaren dimentsio soziala

- Eleaniztasuna eta kultura –aniztasuna existitzen dela onartu eta horretarako beste hizkuntzetako testuak bilatzea, irakurtzea eta entzutea. **K1,K2,K5,K6**
- Euskararen erabilerari lehentasuna ematea, pertsona arteko harremanetan eta ikaskuntza egoeretan. **K3,K7**
- Hizkuntza guztienganako jarrera positiboa lantzea.
K3,K5,K6

2 EDUKIEN DENBORALIZAZIOA					
O R D.	1. ebaluazioa	O R D.	2. ebaluazioa	O R D.	3. ebaluazioa
2	KOMUNIKAZIOA 1: Ataria, irakurmena eta komunikazioa jarduerak: Arriskua gozabide - Irakurketa - Entzungaia - Mintzamena - Idazmena - Testua aztertzen (Non gogoz, han zangoa)	2	KOMUNIKAZIOA 5: Ataria, irakurmena eta komunikazioa jarduerak: Digitalaren on-gaitzak - Irakurketa - Entzungaia - Mintzamena - Idazmena - Testua aztertzen (Jantzita eramateko informatika)	2	KOMUNIKAZIOA 9: Ataria, irakurmena eta komunikazioa jarduerak: Etorkizuneko janaria? - Irakurketa - Entzungaia - Mintzamena - Idazmena - Testua aztertzen (Zergatik jaten dute zotzekin Asian?)
1	Gramatika - Perpaua (osagaiak) - Izen Sintagma	1	Gramatika - Deklinabidea (gainerako kasuak) - Aditzak (Aspektua)	1	Gramatika - Konparazio perpaua - Aditza: NOR-NORI aditz laguntzaileak
3	Komunikazioa (Egiten jakin) - Kirol baten historia eta arauak azaltzea - Xakea kirola da (entzumena) - Deskribatzea (Agirreandiarren itzala)	3	Komunikazioa (Egiten jakin) - Inkesta egitea - Tabletak, mugikorrak eta nerabeak (entzumena) - Argibide orria (Flyboarda, kirol-tresna berria)	3	Komunikazioa (Egiten jakin) - Nazioarteko menua sortzea - Zuberoako Arbailarren elikabidea (entzumena) - Gutun irekia: <i>Fast food</i>-a ala Ekolapikoa?
1	Lexikoa eta ortografia Hitzen izaera eta sorkuntza	1	Lexikoa eta ortografia - Zailtasun atzizkiak - Puntuazio markak II	1	Lexikoa eta ortografia - Hit elkarketa - Hitz elkar. idazkera
3	Literatura (Poema jostariak I + Irakurketa)	3	Literatura (Bat-bateko bertsolaritza + Irakurketa)	1	Literatura (Antzerkia + Irakurketa)
1	Amaierako jarduerak	1	Amaierako jarduerak	3	Amaierako jarduerak
1	Gaitasunen neurketa	1	Gaitasunen neurketa	1	Gaitasunen neurketa
2	KOMUNIKAZIOA 2: Ataria, irakurmena eta komunikazioa jarduerak: Hori Donna eta! - Irakurketa - Entzungaia - Mintzamena - Idazmena - Testua aztertzen (Inperio indarra)	2	KOMUNIKAZIOA 6: Ataria, irakurmena eta komunikazioa jarduerak: Ausardia ala izerdia? - Irakurketa - Entzungaia - Mintzamena - Idazmena - Testua aztertzen (Gose jokoak)	2	KOMUNIKAZIOA 10: Ataria, irakurmena eta komunikazioa jarduerak: Gure antipoda - Irakurketa - Entzungaia - Mintzamena - Idazmena - Testua aztertzen
1	Gramatika	1	Gramatika		

3	- Aditz sintagma - Deklinabidea Komunikazioa (Egiten jakin) - Playista egitea - Musika eta letra(entzumena) - Lekuak deskribatzea (Nafarroako harribitxiak) Lexikoa eta ortografia - Hitz motak - Orduak nola adierazi Literatura (Poema jostariak II + Irakurketa)	3	- Deklinabidea (mugagabea) - Perpau motak Komunikazioa (Egiten jakin) - Aurreikuspenak egitea - Kameratoiaia(entzun) - Deskribapenezko azalpen testua (Xiang glerlariak) Lexikoa eta ortografia - Izen abstraktuak sortzeko atzizkiak -A itsatsia Literatura (Idatzizko bertoslaritza: bertso jarriak + Irakurketa)	3	(Iluntasunean argi) Gramatika - Perpau osagarriak - Aditza: Nor-nori-nork aditz lahuntzailea Komunikazioa (Egiten jakin) - Proiektu ekologikoa aurkeztea - Jane Goodall, txinpantzeen ikertzailea(entzumen a) - Lagunarteko mezu elektronikoa Lexikoa eta ortografia - Hirz monosemikoak eta polisemikoak - Txistukariak: s, x, z Literatura (Narrazioa I + Irakurketa)
1	Amaierako jarduerak	1	Amaierako jarduerak	1	Amaierako jarduerak
3	Gaitasunen neurketa	3	Gaitasunen neurketa	3	Gaitasunen neurketa
1		1		1	
2	KOMUNIKAZIOA 3: Ataria, irakurmena eta komunikazioa jarduerak: Jeans-ak beti modan? - Irakurketa - Entzungaia - Mintzamaia - Idazmaia - Testua aztertzen (Gona denontzat)	2	KOMUNIKAZIOA 7: Ataria, irakurmena eta komunikazioa jarduerak: Misil guztien gainetik - Irakurketa - Entzungaia - Mintzamaia - Idazmaia - Testua aztertzen (Ekialdetik iritsi zen enara)	2	KOMUNIKAZIOA 11: Ataria, irakurmena eta komunikazioa jarduerak: Zorte ona, zorte txarra... - Irakurketa - Entzungaia - Mintzamaia - Idazmaia - Testua aztertzen (Mitoak eta oroitzapenak)
1	Gramatika - Deklinabidea (kasu gramatikak) - Aditz Lag. (izan/ukan)	1	Gramatika - Perpaua: baldintza - Aditzak (Baldintza hipotetikoak)	1	Gramatika - Denborazko perp. - Aditzak (Ahalera eta agintera)
3	Komunikazioa (Egiten jakin) - Webgune bat aurkeztea - Modako blogger euskalduna(entzun) - Egunerokoa	3	Komunikazioa (Egiten jakin) - Bidaia bat planifikatzea - Lau eskutara idazten (entzumena) - Kausa-ondoriozko azalpen testua (Zirkulu mortuak basamortuan)	3	Komunikazioa (Egiten jakin) - Euskal sinbologia deskribatzea - Astronomia eta astrologia(entzumen a) - Iritzi artikulua (Teknologia berriak, arazo berriak)
1	Lexikoa eta ortografia - Atzizkien sailkapena eta egile atzizkiak - Letra larrien erabilera	1	Lexikoa eta ortografia - Izenondoak sortzeko atzizkiak - Ba- eta -(e)z geroren idazkera	1	Lexikoa eta ortografia Hitz sinonimoak
3	Literatura (kopla zaharrak + Irakurketa)	3	Literatura (kopla zaharrak + Irakurketa)	3	Literatura (kopla zaharrak + Irakurketa)
1	Amaierako jarduerak	1	Amaierako jarduerak	1	Amaierako jarduerak
1	Gaitasunen neurketa	1	Gaitasunen neurketa	1	Gaitasunen neurketa

2	KOMUNIKAZIOA 4: Ataria, irakurmena eta komunuikazioa jarduerak: Letrak ala zenbakiak? • Irakurketa • Entzungaia • Mintzamina • Idazmina • Testua aztertzen (Codex Gigas)	2	Literatura (Olerkigintza I + Irakurketa) Amaierako jarduerak Gaitasunen neurketa	1	eta antonimoak • TS, TX, TZ,
1	Gramatika • Deklinabidea (leku-denborazko kasuak) • Aditzak (Aditz trinkoak)	1		2	Literatura (Narrazioa II + Irakurketa) Amaierako jarduerak Gaitasunen neurketa
3	Komunikazioa (Egiten jakin) • Liburu sorta bat aukeratzea • Amaren liburutegia (entzumena) • Albistea (Lehen izozki fluorezentea sortu dute)	3	KOMUNIKAZIOA 8: Ataria, irakurmena eta komunuikazioa jarduerak: Hego Poloan helburu • Irakurketa • Entzungaia • Mintzamina • Idazmina • Testua aztertzen (Amelia Earhart-en azken hegaldia)	1	KOMUNIKAZIOA 12: Ataria, irakurmena eta komunuikazioa jarduerak: XXL olatuak: mira ala izua • Irakurketa • Entzungaia • Mintzamina • Idazmina • Testua aztertzen (Kapitainarekin berriketan)
1	Lexikoa eta ortografia • Jatorri atzizkia • Puntuazio markak I	1	Gramatika • Perpausa: erlatiboa • Aditzak: NOR-NORK aditz laguntzaileak	3	Gramatika • Kausazko perpausak eta kontzesiboak • Aditzak (Subjuntiboa)
3	Literatura (Erromantzeak + Irakurketa)	3	Komunikazioa (Egiten jakin) • Azalpen bideo bat egitea • Maria, euskara bere kabuz ikasi duen greziarra (entzumena) • Kazetaritza elkarriketa (Hiriak beste modu batera ikusten ditugu)	1	Komunikazioa (Egiten jakin) • Udako kanpamentua antolatzea • Udaleku, istorio euskal-amerikarra (entzumena)
1	Amaierako jarduerak	1	Lexikoa eta ortografia • Atzizki graduatzaileak • H letra	3	• Eskabide gutuna
1	Gaitasunen neurketa	1	Literatura (Olerkigintza II + Irakurketa) Amaierako jarduerak Gaitasunen neurketa	1	Lexikoa eta ortografia • Hiztegiak • BAIT-en erabilera
				1	Literatura (Narrazioa III + Irakurketa) Amaierako jarduerak Gaitasunen neurketa

IKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA					

METODOLOGIA [Gelako jarduerak planteatzeko modua. Jarduerak aurrera eramateko erabiliko dugun metodoa, edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

Euskara eta Literatura arloa lantzeko erabiliko ditugun printzipio metodologikoak hauexek dira:

1.Aurrezagutzaren printzipioa: Eskolara baino lehen eta eskolatik at ikasitako gauza asko dago ikaslearen altxorrean, areago mundu mugikor eta aldakor honetan. Dakitenetik abiatuz eta elkarrizketa sortuz abiatu beharra dago, funtzio hori betetzera dator ataria jarduera.

2.Egokitzapenaren printzipioa: Hezkuntzaren izaera hezitzailea indartu egin behar da. Ikasleak gauzak egiten jakiteko prestatu behar ditugu, hau da errealitatean aplikatzen den jakintza, askotariko testuinguruetara egokitzeko aukera eman eta izaera integratzailea duena(jakintzak, prozedurak eta jarrerak). Gure ikasleek jakin eta egiten jakin behar dute, jakintza eta ekintza uztartuz.

3.Funtzionaltasunaren printzipioa: Bizitzarako balio dion zerbait bezala hartu behar du ikasleak eskolako jarduna. Horregatik du halako garrantzia zertarakoak. Beraz, haien errealitatean eta interesetan oinarritzen diren jarduerak proposatzen saiatu gara.

4. Komunikazio printzipioa: Hizkuntza elkarrekintzan erabiliz eta besteekin gauzak egiteko erabiliz garatzen da. Komunikazioa izango da irakaskuntza-ikaskuntza estrategia nagusia, prozesuaren giltzarria; hizkuntzaren erabilera esanguratsua eta eraginkorra eraikitzean datza. Ikasleek hainbat eratako komunikazio egoeren aurrean aritzeko baliabideak lor ditzaten testu genero mota desberdinak landuko dituzte, bere bizitza pertsonalean eta profesionalean beharko dituztenak.

5.Printzipio eraikitzailea: Ikasketa proiektu jardueren bidez ikasleak partehartze aktiboa du jakintzaren sortze prozesuan, beti ere, irakaslearen laguntzarekin. Jarduera hauek ikasleak motibatu egiten dituzten tresna didaktikoak dira, ikasleak bere ezagutza propioa autonomikoki eraikitzen duelako eta jakintza maila diferenteetara egokitzen direlako, norberaren ahalmenera moldatuz. Proiektu osoen bidez erraztu egiten da oinarritzko gaitasunak ikasleei helarazteko bidea eta jakintza arloen eta irakasgaien arteko diziplinartekotasuna.Jarduera hauek ikasleak motibatu egiten dituzten tresna didaktikoak dira; ikaslea da azken finean, informazioa lortu, hautatu, eraldatu eta prozesatzen duena, beraz subjektu aktiboa da. Beste aldetik, errealitatean eta haien interesetatik hurbil dauden proiektuak planteatuz motibatu egiten ditugu ikasleak.

Beraz, ikaslea subjektu aktibo bihurtzen da izaste prozesuan. Hori kontuan izanik, irakaslearen papera aldatu egiten da. Irakasleak funtzio bi izango ditu: Alde batetik, irakasleak ikasleak motibatu egin beharko ditu ikerketa proiektu motibagarriak eskainiz; eta, beste aldetik, gidatu egin beharko du ikaskuntza prozesua argibideak eta baliabideak emanez eta esplorazioa bideratuz.

6.Talde lanaren printzipioa: Zenbait ariketak bakarlanean ematen du etekinik ederrena, baina elkarlanean aritzeak garrantzi handia du gaur egun. Beraz, bi eratako jarduerak planteatzen ditugu unitate guztietan.

7.Diziplinartekotasunaren printzipioa: Proposatzen ditugun jardueren bidez arlo desberdinetako jakintzak uztartzen dira; beraz oinarritzko gaitasunen garapena bermatzen da. Ezin ahaztu, bestalde, euskara komunikazio tresna dela eta, beraz, ezinbesteko tresna dela edozein giza harremanetarako.

4	BALIABIDEAK	
TESTU LIBURUA : Euskara eta Literatura. Eragin. DBH 1 IRAKURKETA LIBURUAK: Lesterren logika (Harkaitz Cano) Azken balada (Mariasun Landa) Abbadiaren sekretua (Fernando Morillo)		EDITORIALA: Zubia Santillana
Testu-liburuaren paperezko bertsioa (ikastetxeak <i>Liburu solidarioa</i> programaren bitartez ikasleen eskura jarria) nahiz bertsio digitala izango dugu oinarri ikasturtean zehar. Etxean edo etxetik lanean ari diren ikasleak klaseekin Meet bidez konekta daitezten eta lanak Classroom bidez egin ditzaten bultzatu eta bermatuko dugu. Informazioa bilatzeko, ariketak egiteko, idazlanak eta lanak konpartitu eta zuzentzeko eta hainbat audio eta bideo ikusteko ere erabiliko dugu internetea, gelako ordenagailuaren bidez edo ikasleek eskura izango dituzten ordenagailuen bidez (nork berea edo eskolak mailegatua izango du). Erabiliko diren zenbait webgune: http://aralartxikitxoko.blogspot.com.es/ http://eu.wikipedia/ http://www.ikasbil.eus/web/ikasbil/home http://www.eitb.tv/eu/irratia/ http://www.euskaljakintza.com/		
5	EBALUAZIO IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK.. EBALUAZIO TEKNIKAK ETA TRESNAK. KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK	

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Ahozko testuak ulertu eta sortu ditu.

Badaki idatzizko testuak sortzen, koherentziaz, kohesioz eta zuzentasunez.

Literaturaz gozatu du. Poesiak eta bertsoak errezitatu eta kantatzen ditu.

Aditza eta deklinabidea zuzen erabiltzen ditu.

Oinarrizko gramatika kategoriak ezagutzen ditu: Aditza, izena, izenondoa.

Idazkietan zuzentasuna baloratuko da.

Ebaluazioan ere aniztasunari arreta eskainiko zaio, horretarako kasu bakoitza aztertuko da, baina orokorrean laguntza behar duten ikasleei azterketa egokitu egingo zaie, lan monografikoak edo memoriak egingo dira.

Kasu hauetan eguneroko lanari, sorkuntzako lanari eta ikaslearen jarrerari emango zaio garrantzia handiagoa.

Ahalmen handiagoko ikasleei agindutako lanak ebaluatuko zaizkio, beti ere modu motibagarrian.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Irakurketa-liburuaren froga eta iruzkina, %10.

Hizkuntz gaitasunen, gramatika- eta hiztegi-edukien eta literaturaren inguruko frogak % 30.

Idazlanek %30.

Ahozkoak %10.

Jarrerak %20.

Atal bakoitzean gutxienez bat lortu beharko da atala eta ikasgaia gainditzeko.

Ikasle bakoitzari ebaluazio hasieran ematen zaio kalifikazio-irizpideen zehaztasuna.

Eguneroko lana, etxerako lanak eta gelako jarrera positibo eta negatiboen bidez ebaluatuko da.

TRESNAK

Idazlanak, irakurketako ulermen-frogak, mintzameneko jarduerak eta azterketak.

Eduki bakoitzari dagokion ebaluazio-irizpideak banatzen zaizkio ikasleari.

6

BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

Indartze-neurriak, aparteko lanak.

Hurrengo ebaluaketak edo lanak gainditzea.